

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3640

1178/2026 EBAZPENA, uztailaren 23koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendariarena, zeinaren bidez zuzentzen baita ebazpen hau: 1030/2026 Ebazpena, ekainaren 29koa, zeinaren bidez lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2026ko maiatzeko zikloko destinoen eskaintza argitaratzen baita teknikari laguntzaile sanitarioen lanbide-taldeko erizaintzako laguntzaile kategorian/lanpostu funtzionalean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundearen destinoetarako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 26ko 274/2021 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra deitu zen teknikari laguntzaile sanitarioen lanbide-taldeko erizaintzako laguntzaile kategorian/lanpostu funtzionalean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundearen destinoetarako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendariaren ekainaren 29ko 1030/2026 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2026ko maiatzeko zikloko destinoen eskaintza argitaratu zen teknikari laguntzaile sanitarioen lanbide-taldeko erizaintzako laguntzaile kategorian/lanpostu funtzionalean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundearen destinoetarako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendariaren ekainaren 29ko 1030/2026 Ebazpenaren eranskinean, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2026ko maiatzeko zikloko destinoen eskaintza jasotzen da teknikari laguntzaile sanitarioen lanbide-taldeko erizaintzako laguntzaile kategorian/lanpostu funtzionalean. Eranskinean destinoen zerrenda jasotzen da, hauek adierazita: eskaintzako destino kopurua, eskaintzaren zerbitzu-erakundea eta destinoaren deskribapena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendariaren ekainaren 29ko 1030/2026 Ebazpena argitaratu ondoren (uztailaren 14ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 132. zk.), oker materialak aurkitu dira destinoen zerrenda jasotzen duen eranskinean.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak hau ezartzen du 109.2 artikuluan: «Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

Horiek guztiak horrela, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak egozten dizkidan esku-menez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Ematea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendariaren ekainaren 29ko 1030/2026 Ebazpenaren eranskina zuzentzeko ebazpena (1030/2026 Ebazpenaren bidez lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2026ko maiatzeko zikloko destinoen eskaintza argitaratu zen teknikari laguntzaile sanitarioen lanbide-taldeko erizaintzako laguntzaile

kategorian/lanpostu funtzionalean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundearen destinoetarako). Huts-zuzenketa honelakoa izango da:

a) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendariaren ekainaren 29ko 1030/2026 Ebazpenaren eranskinean, hau agertzen da eskainitako destinoen zerrendan:

Destino kop.	Zerbitzu-erakundea	Destinoa
11	Gorlizko Ospitalea	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Ospitaleko Arreta / Gorlizko Ospitalea - Gorliz / Ospitalizazioa - Ospitalizazio medikoa - Ospitalizazio medikoa / Txandakakoa, 3 txanda - Txandakakoa, 3 txanda - Espezifikotasun gehiagorik gabe / 2. HE - Iraungita

Eskainitako destino-kopuruan oker material bat aurkitu denez, honela zuzendu behar da:

Destino kop.	Zerbitzu-erakundea	Destinoa
10	Gorlizko Ospitalea	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Ospitaleko Arreta / Gorlizko Ospitalea - Gorliz / Ospitalizazioa - Ospitalizazio medikoa - Ospitalizazio medikoa / Txandakakoa, 3 txanda - Txandakakoa, 3 txanda - Espezifikotasun gehiagorik gabe / 2. HE - Iraungita

b) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendariaren ekainaren 29ko 1030/2026 Ebazpenaren eranskinean, hau agertzen da eskainitako destinoen zerrendan:

Destino kop.	Zerbitzu-erakundea	Destinoa
2	Bilbo-Basurtuko ESla	Ospitalea (Ospitalea eta anbulatorioa) - Ospitaleko Arreta / Saralegiko Osasun Zentroa - Barakaldo / Eguneako ospitalea - Eguneako ospitale psikiatrikoa - Haur eta gazteentzako eguneako ospitale psikiatrikoa / Goizez - Goizez (08:00-15:00) - Espezifikotasun gehiagorik gabe / 2.HE - Iraungita

Kokapena «Saralegi-Barakaldo» gisa deskribatu izana oker materiala da, hortaz, «Barakaldo» hitza destinoaren kokapenetik kendu eta «Bilbao» hitzarekin ordeztu behar da, ageriko arrazoiengatik, Bilbo-Basurtu ESla baita, eranskinean behar bezala jasotzen den bezala.

Hori dela-eta, destinoaren deskribapena zuzendu behar da, eta testua honela geratuko da:

Destino kop.	Zerbitzu-erakundea	Destinoa
2	Bilbo-Basurtuko ESla	Ospitalea (Ospitalea eta anbulatorioa) - Ospitaleko Arreta / Saralegiko Osasun Zentroa - Bilbao / Eguneako ospitalea - Eguneako ospitale psikiatrikoa - Haur eta gazteentzako eguneako ospitale psikiatrikoa / Goizez - Goizez (08:00-15:00) - Espezifikotasun gehiagorik gabe / 2.HE - Iraungita

Bigarrenena.– Agintzea ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lekualdatze-lehia-ketaren webgunean eta EHAAn argitara dadin.

Hirugarrena.— Gainerako jarduetarako, mantentzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendariaren ekainaren 29ko 1030/2026 Ebazpenak ezartzen duena (ebazpen horren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2026ko maiatzeko zikloko destinoen eskaintza argitaratu zen teknikari laguntzaile sanitarioen lanbide-taldeko erizaintzako laguntzaile kategorian/lanpostu funtzionalean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeen destinoetarako).

Laugarrena.— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutuak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 23a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendaria,
JOSUNE RETEGI ORMAZABAL.